SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko abenduak 19, ostirala • 2. aldia • 489. zenbakia

GUAIXE.EUS

Birziklatze etxola erabilgarri dago Etxarri Aranatzen

Sakanerria >> 7

Igandean Aralarko santutegiak 50. Mendizale Eguna hartuko du. Sakanako mendizaleekin batera beste hainbat elkartuko dira

Kirolak >> 11

Sakana Europako hondakin organikoen programa batean

>>7

Tratatzeagatik berdin pagatzera hondakin gutxiago sortuta ere

Tuterako hondakindegira %21 hondakin gutxiago eramanda ere, Mank-ek milioi erdi euro ordaindu beharko du >>3

Lau egun Xaloa Telebistaren aldeko diru bilketa bukatzeko

50.000 euro behar dira emisorea eta bi errepikagailu erosteko. Atzora arte 35.000 euro jasoak zeuden >>9

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sarea

Konpromiso bilketa abiarazi dute >>8

Euskararen aldeko Lip-dub-a etzi Irurtzunen

>>5

Soinu bandak joko ditu bihar Altsasun Haize Berriak-ek

>>15

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

efiven

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Planeta urdinerako Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Adur Ongay
Ongi etorria mundu txoro honetara! Muxu handi bat Iraia, Oier eta Iraiaren partes!!

Lierni Zabala Mauleon
ZORIONAK printzesa!! Azkenien ayatua, e? Sei muxu haundi amatxo eta aitatxon partes.

Lierni Zabala Mauleon
ZORIONAK futbolari!! Sei muxu haundi Oinatz eta Enaitzen partes. Txokolatien espia yonko ga.

Luis
ZORIONAK Luilly! Boltio, Oihan eta gainontzekuek etxeratzien ospatuko yau herri honen askatasune.Jo ta ke irabazi arte! Hire lagunak!

ZORIONAK Asiertxo! Hamarkada berria estreinatuz zatoz. Maite zaitugun guztion partez, segi beti bezain alai eta kantari. Pote-pintxo taldea.

Iker eta Irati Ondarra
ZORIONAK bikote!! 3 urte dagoeneko!! Orain arte bezala jarraitu eta muxu asko etxekoen partez

ZORION AGURRAK

Bakarra: 4€ — **3,50€ bazkideek**

Bikoitza 8€ — **7€ bazkideek**

abenduak 19-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gabon kantak. Abenduaren 19an, ostiralean, 20:30ean Altsasuko elizan. **Erkudengo Ama Abesbatza.**

Gabonetako kontzertua. Abenduaren 20an, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Musika eskolako ikasleak.**

La noche de... Haize Berriak, Zumarragako banda eta Felix Linares. Abenduaren 20an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Burunda frontoian.

Egizu lo. Abenduaren 21ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. **Etxarriko Abesbatza.**

Ipuin kontalaria

Neguko oporretan... te echaré de menos. Abenduaren 19an, ostiralean, 18:00etan Irurtzungo liburutegian. **Ventura Ruiz.**

Elur maleta batek kontatzen duena. Abenduaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Birgiñe Albira.**

Zinema

El gran cuaderno. Abenduaren 19an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ocho apellidos vascos. Abenduaren 19an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 21ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los boxtrolls. Abenduaren 21ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Zinema gabonetan. Abenduaren 23an, asteartean, 16:15ean (euskaraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz) Irurtzungo kultur etxean.

Mendi irteerak

Mendizaleen eguna. Abenduaren 21ean, igandean, 8:30ean Lakuntzatik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

San Adriango lezea. Abenduaren 21ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 43 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Pintura detritus. Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Dispertsioaren aurpegiak. Sakabanaketa politikak eragiten duenaz. Abenduaren 20an, larunbatean, 18:30etik 20:30era Etxarri Aranazko kultur etxean.

Trenak 150 urte Altsasun. Abenduaren 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ardiak eta beste. Abenduaren 30era arte Urdiaingo Kaluxa tabernan.

Gabonetako txartelak. Abenduaren 22tik ilbeltzaren 6ra Altsasun.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Ardiak eta beste. Abenduaren 30era arte Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Idoia Zufiaurre.**

Jaiotzak. Ilbeltzaren 11ra arte, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara Olatzagutian, Sakanako Belenzaleen Elkartearen egoitzan.

Hitzaldiak

Gaztela, herri baten askapen borroka. Abenduaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. **Hizlaria: Askapenako brigadistak.**

Bertsolaritza

Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. Abenduaren 20an, larunbatean, 21:30ean bertso afaria Irurtzungo Iratxo elkartean.

Tailerrak

Album ilustratua. Abenduaren 19an, ostiralean 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso.**

Brotxeak. Abenduaren 23an, asteartean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Zorri Azoka. Abenduaren 19an, ostiralean, 16:30ean Altsasuko Gure Etxean eta abenduaren 21ean, igandean, 10:00etatik 15:00etara Etxarri Aranazko frontoian.

Merka-truke. Abenduaren 19an, ostiralean, arratsaldez Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Txistorra eta txokolate jatea. Abenduaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan. Intxostia eguneko kolaboratzaileen babesaz.

Elkartasun eguna. Abenduaren 20an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Arbizun.

Euskarak 365 egun Lip-dub grabaketa. Abenduaren 21ean, igandean, 10:00etan Irurtzungo plazan.

Neguko solstizioa. Abenduaren 21ean, domekan, 19:30ean Altsasuko Dantzalekun.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Abenduaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 19an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Preso, errefuxiatu eta deportatuen eskubideen alde. Abenduaren 22an, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Sasoia.**

Hondakinen kontsulta. Emaitzen aurkezpen batzarra. Abenduaren 22an, astelehenean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM beleixe online
www.guaixe.net

Pizgu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Etxarri Aranazko Sare, Etxarri Aranazko abesbatza, Kirolari onenak...

Esataria: Eneida

SAKANA

Hondakinen %21 gutxiago sortuta ere haien tratamenduagatik Mank-ek berdin ordainduko du

Sakanako Mankomunitatea Tuterako El Culebrete hondakindegira 5.007,42 tona hondakin eramatetik 3.634 eramatera pasa da. Hala ere, berdin pagatzen du, milioi erdi euro

Sortutako hondakinen arabera ordaintzea; Mank-ek Nafarroako Hondakinen Partzuergoari irizpide hori bere egitea eskatu dio

Nafarroako Hondakinen Partzuegoaren aurreko bilera bat.

Asteartean elkartu zen Nafarroako Hondakinen Partzuergoko zuzendaritza 2015eko aurrekontuak onartzeko. Herrialdeko hondakinen tratamenduaz arduratzen den erakundeak 7.497.049,31 euroko aurrekontua izanen du. Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak kontra bozkatu zuen: "Arrazoia? Tasa bakarra dagoela. Legegintzaldi guztia pasa dugu esaten sortzen den hondakinen arabera ordaindu beharko litzatekeela esaten. Eztabaidarako lan-taldea sortzea lortu genuen. Baina elkartu aurretik Jose Javier Esparza kontseilariak bertan behera utzi du". Mank-eko arduradunek urarekin gertatzen den moduan, kontsumitzen denaren arabera ordaintzea nahiko lukete hondakinen kasuan ere.

Etsita hitz egin zuen Mank-eko buruak: "Nafarroan ez da birziklapena sustatzen. Sakandarrek hondakinen birziklapenean ahalegina egiten dute eta horrek saria merezi duela uste dugu: gutxiago ordaintzea. Horretarako eskatzen dugu dagoen tasa bakarra kentzea eta sortzen den hondakinen arabera ordaintzea".

Mank-en proposamena da udalek tratatutako hondakin tonaren arabera ordaintzea, edozein dela sistema (biometazioa, konpostatzea, hondakindegia…) eta gero udalek egoki jotzen duten moduan herritarrei kobratzea. "Horrela, erakunde bakoitzak hondakinen tratamendurako egindako ahaleginaren arabera ordainduko luke". Karasatorrek nabarmendu duenez, hondakin bilketa sistema indarrean dagoen herrietako sakandarrak Europako legedia betetzen duten lehen nafarrak direla.

Batzorderik ez

Esparzak partzuergoaren ordainketa tasa aztertzeko batzordea sortzeko une egokia ez zela adierazi zuen. Nafarroako eta Espainiako gobernuek toki erakundeen mapa aldatzeko nahia azaldu dute. Hura zehaztua egon arte eta toki erakundeek zein finantziazio-bide izanen dituzten argitu arte tasa ez aldatzea proposatu zuen Esparzak eta hala onartu zuen partzuergoak.

Mank-etik nabarmendu zen Nafarroako mankomunitateek hondakinak kudeatzeko sistema ezberdinak zituztela eta haien neurriko erantzuna behar zela, bestela mankomunitateren batek partzuergoa uztea aztertu zezakeelako. Sistemaren bidegabekeria adierazteko Etxarrin jarritako birziklapen etxolaren adibidea eman digu Karasatorrek. Etxola edo Garbigune mugikorrik ez balego haietan jasotzen diren hondakinak errefusan edo edukiontzi berdean bukatuko lukete. Hau da, Tuterako hondakindegian birziklatu gabe. "Haietan jasotzen diren hondakinak bereziak dira eta haiek birziklatzen dituzten kudeatzaileei ordaindu egin behar zaie. Zenbat eta gehiago birziklatu orduan eta gehiago ordaindu behar dugu. Horrela ez da birziklatzea sustatzen".

Ibilgailuak

Hondakin bilketa sistema berria indarrean denez geroztik, Mank-eko Hondakin Zerbitzuan ohartu dira kamioi txikiekin hobe moldatzen direla. Horregatik, Izarbeibarreko mankomunitateko kamioi bat eskuratu du. Aldi berean, Mendialdeko mankomunitatearekin beste ibilgailu bat trukatu du. Bestalde, gasolio hornikuntza merkatzeko kontratu berria egin du.

Eskaera

Mank-ek eskaera ofiziala egin dio Nafarroako Hondakinen Partzuergoari: Arbizuko hondakindegian konpost planta bat jarri dezala.

Enplegu tailerra

Sakanako Mankomunitateak, Ekograsetaa Vermicam enpresekin batera, enplegu tailerra antolatzeko eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari. Mank-ek enplegu tailerraren bitartez 16 lagun birziklatzean prestatu eta trebatu nahi ditu, gero lanpostuak sortzeko. Joan den urtean eskaera bera egin zuen eta gobernuak atzera bota zuen.

Tarifak izoztuta

Partzuergoak orain arteko tarifak mantentzea erabaki zuen. Mank-i etxeko hondakinak jasotzeagatik ordaintzen zaion zatietako bat, 46,32 euro, partzuergoarendako da. Karasatorrek aipatu duenez, "ahalegin handia suposatzen du partzuergoak gure eskariak ezonartzeak. Gehiago birziklatu, gutxiago pagatu ideiari segituz, hobarien bidez, hondakinen tasa merkatzeko aukera izanen genukeelako. Baina ezin da".

Bestalde, Mank-ek ur zerbitzuko tasak dauden bezala uztea erabaki du. Hala ere, ordenantzan aldaketa txiki bat egin du Olatzagutiko kasu batera egokitzeko. Eraikin batean hainbat etxebizitza daude eta ur kontagailu bakarra dute. Ur kontsumoa handia dute, jakina. Eta hori da hain zuzen Mank-ek zigortzen duena. Baina kasuaren berezitasuna ikusita, ordenantzan salbuespen hori jaso du.

Eguberritako jai egunetan hondakin bilketak segituko du

Eguberrietako bi jai egunetan, abenduaren 25ean eta ilbeltzaren 1ean, atez atekoa duten herrietan hondakin organikoak jasotzeko egunak dira. Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak jakinarazi duenez, bi egun horietan bilketa zerbitzua izanen da Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian.

astekoa

Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

Urte berri – egoera berri

Dena hankaz gora jarri ondoren
Dirudi egoera berria aurrean daukagula,
2015ean erabaki asko hartu behar
Lehenengo udaletxe ezberdinen aldaketak,
Bigarren, Burgostar alaba badoa
Nora jakin behar, baina badoa,
Maiteminduak halakoxeak egiten dituzte: nonbait elkartu!
Ene bada! zer eginen du hemendik kanpo!
Zer egin behar dugu lideresarik gabe?
Nola nahi konkista berriak asmatu,
Hemendik eta handik sakelak bete ere,
Eta beti prest gehiago betetzeko, ene!
Zer eginen du hainbat trastelekurekin bere teilatupean?
Igerileku estalia beteta utzi, edo deus ere;

Beste hainbat lapurkeri instituzionalizatuak salgai gaur
Nola jarraituko dute politikari mafiosoek boterea galtzen badute?
Aberasteko aukera gutxiagorekin gehiago presatuko dira?
Edo beraien artean istilu gehiago mugituko dute?
Nirea ez bada, zurea ere ez
Nik jasotzen ez badut, zuk ere ez,
Nirekin sartzen bazara, ni zurekin ere bai
Ni lapurra eta mafiosoa banaiz, zu ere bai,
Bolibiaranoak ????dena hankaz gora jarri dute!
Eta Bolibiaranoak akelarre bat asmatzeko prest!
Zer mina egin duten dena zintzilik uzteko!
Zer gorrotoa jaso duten hemendik eta handik!
Bekariodun triste batekin Lehendakariak ere sartzeko!
Beste hainbat Unibertsitatetan egiten dena egiteagatik!
ZER PENA, ZER LOTSA, BAINA 2015EAN ALDAKETA. ONGI IZAN.

barrutik kanpora

Denbora, bizitzaren altxorra

Seneca(K.a. III. mendea) luze mintzatu zen denboraren inguruan. Ez omen dugu denbora gutxi, baizik eta gehiegi galtzen omen dugu. Eta bizitzak bukaera bat duela sentitzen dugunean, orduan konturatzen gara zertan eman dugun gure denbora. Denborak, heriotzak bezala, berdindu egiten gaitu: behartsuak izan edo aberatsak izan, diru kontutan noski, naturak zati berdina eman digu bakoitzari, hogeita lau ordu egunean, alegia; eta heriotzaren misterioa, behin probatuko duguna, baina inori ezin esanen dioguna zer zapore duen.

Bizitza, ongi erabiltzen jakinez gero, mamitsua da. Senecak proposatzen digu aztertzea zenbat denbora eskaintzen diegun gure zereginei, gure lagunei, gure semealabei, bikoteari, plazerrari, bezeroei... Kontuak atera eta heldua bazara, haur bihurtuko zara urte gehienak besteei eman dizkiezulako eta denbora gutxi gorde duzulako zuretzat eta benetan merezi zuten gauzetarako. Bizitza bukaezina balitz bezala bizi dugu, sekula ez dugu pentsatzen noizbait amaituko dela eta, bitartean, galduz joaten gara, hemen betiko egongo garelakoan.

Harritzen omen zen Seneca, batzuek denbora faltan zuten bitartean, beste batzuek alferrik galtzen zutelako. Zeintzuk dira, ordea, gehien estimatzen dutenak? Ai denbora 12 Jaiotzen denetik bere bidetik doa, bere abiadura gelditu gabe, arreta galdu gabe, gure ondotik pasatzen begiratu gabe.

Senecak egindako hausnarketa izan da hau, eta esan, irakurle maite horrek, zuk zertan ematen duzu denbora?, nori eskaintzen diozu bizitzaren altxorra?

Larrezabal, denbora bankua
larrezabaldk@inigoaritza.com.

barrutik kanpora

Jolasak eta jostailuak aukeratzeko gomendioak

Adituen arabera, ikasteko jolasten dugu eta jolasean ikasten dugu. Izan ere, jolasaz baliatzen gara gure izaera eraikitzeko eta gure garapen kognitiboa, psikomotorra eta sozio-afektiboa gauzatzeko, eta arlo horiek bermatzen dute gure garapen integrala. Horrela adierazi ziguten Altsasuko ludotekan izandako "Jolasaren eragina haurren heziketan" tailerrean.

Bestalde, azaldu ziguten jolasa eta jostailuak ez direla berez sexistak, egiten dugun aukera eta erabilera direla (izatekotan) sexistak.

Hori dela eta, jostailuak aukeratzen laguntzeko gomendio batzuk gurera ekartzea egokia iruditu zaigu:

Aztertu haurren eskaerak modu kritiko eta koherentean. Ez esan baietz eskatzen duten guztiari.

Bilatu jolas librea eta espontaneoa sustatzen duten jostailuak.

Saihestu batzuk neskentzat eta besteak mutilentzat direneko ideia transmititzen dutenak.

Aukeratu bizitzako eremu guzietan neska-mutilak modu parekidean irudikatzen dituzten liburu, jolas eta bideo-jokoak.

Aukeratu pertsonen aniztasuna irudikatzen duten jostailuak eta saihestu estereotipoak sortzen dituztenak.

Sustatu neska-mutilak elkarrengana hurbiltzen dituzten jokoak.

Aukeratu umeen gaitasun pertsonal eta kolektiboak garatzen laguntzen duten jokoak.

Hautatu parte hartzean eta sentimenduak garatzerakoan berdintasuna sustatzen duten joko eta jostailuak.

Aukeratu arazoak modu eraikitzaile, baketsu eta sortzailean konpontzera bideratzen duten joko eta jostailuak.

Saihestu jostailu eta bideo-joko bortitz eta sexistak.

Saiatu ez aukeratzen kolorea dela eta, neska edo mutilei zuzenduak dauden jostailuak.

Aukeratu aurreiritzietatik aldentzen diren jostailuak, adin bakoitzari egokituak, seguruak direnak eta ingurumena errespetatzen dutenak. Baztertu araudiak betetzen ez dituztenak eta irakurri argibideak.

(Donostiako Udaleko "berdintasunean JOLASTU, berdintasunean BIZI" kanpainaren dekalogoa, egokitua)

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko III. Ituna.

Emakumeen Bilgunea

OHARRA >>

Eguberriak direla eta, Guaixea abenduaren 24ean argitaratuko da. Horregatik, zorion agurrak, iragarkilaburrak eta eskelak jasotzeko epea, abenduaren 23ko eguerdiko 12:00ak artekoa izango da.

objektibo tik

Zabor telebista:
Telebistan ez dago ezer eta dagoena kaka hutsa da! Zenbatetan ez dugu halakorik esan edo pentsatu. Telebista utzi zuenak horixe pentsatuko zuen agian. Baina edukiontzietan beharrean Garbigune mugikorrean utzi behar zuen telebista. Programazioa? Norberak hautatu. Edo itzali.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

gora/behera

A
Aukera berriak
Europako hondakin organikoei buruzko programak aukerak sor ditzake ibarrean.

V
Nekazaritza Politika Bateratua
Lehen sektorea lanbide ez dutenak ere diruz lagunduko ditu.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Oihana Zubeldia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurordetza

sakanerria >>

SAKANA

Bideoan lekukotza ematen dutenen artean gure lankide Alfredo Alvaro Igoa dago

Oztopo guztien gainetik, euskaraz bizitzeko nahia

Hamaika egun dinamikaren barruan, "administrazioak aurrekontuak negoziatzen ari diren garaian horren gaineko hausnarketa plazaratu Kontseiluak bideo baten bidez

Nafarroan euskararen normalizazioari bideratutako bitarteko ekonomikoen murrizketa izugarria da. Nafarroako Gobernuaren politika horren ondorioak pairatzen dituzte euskaltegietako edota hedabideetako langileek, euskaraz ikasi nahi eta laguntzarik ez duten herritarrek. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak aurkeztu duen 11 egun oztopo guztien gainetik dokumental laburrean hainbat nafarren lekukotzak jaso dira, tartean Ametza elkarteko Felix Altzelairena eta Bierrik Fundazioko Alfredo Alvaro Igoarena. Euskalgintza, oztopo guztien gainetik, herritarren lanari eta borondate irmoari esker aurrera egiten ari dela ere erakusten du.

Euskaraz bizitzeko nahian urratsak emateko helburuarekin, Hamaika egun dinamika abiatu zuen Kontseiluak Nafarroan orain bi hilabete. Kanpaina apirilaren 25ean despedituko da Iruñeko Anaitasuna kiroldegian eginen den ekitaldiarekin. Bitartean Kontseiluaren baitan biltzen diren eragileek, gaur egungo egoeraren inguruan hausnarketa egin eta herritarrekin partekatzeko asmoz, hainbat gairen inguruan bideo laburrak landuko dituzte. Irailean helduen euskalduntze-alfabetatzearen ingurukoa aurkeztu zuen, orain, administrazioak aurrekontuak negoziatzen ari direnean, horren gaineko hausnarketa plazaratu du Kontseiluak.

Bideoa:

http://vimeo.com/111728458

» Arakil / Irurtzun

Kamara aurreko euskararen aldarrikapena

Igandean, 10:00etan Irurtzunen Euskarak 365 egun, noiznahi, nonahi, orain, hemen lip-dub-a grabatuko da

Giro ederrean egin nahi dute lib-duba. Argazkian kuadrila bat festetan.

Makina bat arakildar eta irurtzundar prest daude igandean kamararekin eta musikarekin duten hitzordurako: lip-dub-aren grabazioa. Kamera mugikor bat kalez kale ibiliko da eta haren aurrean jarriko dira parte-hartzaileak, dantzan eta abestia kantatzen. Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleon topaguneak antolatutako grabazioa, Euskarak 365 egun dinamikaren barruan. Lorena Arangoa, Itziar Matxain eta Xabier Unanua aritu dira hura prestatzen.

Matxainek azaldu digunez, "bi udalerrietan filmatzen denez, ezohiko lip-duba da, duela bi aste hasi ginen grabatzen". Arakilgo lau herritan egin zituzten grabazioak. "Abesti bakarra da eta haren pasarte batzuen grabatu genituen". Izurdiagan herrikoekin batera erroztarrak eta urritzolarrak aritu ziren. Etxeberrin herrikoen aldamenean agertu ziren etxarrendarrak eta egiarretarrak. Ihabarren herriko bizilagunez aparte Satrustegikoak eta Zuhatzukoak zeuden. Hiriberri ere une batez plato bihurtu zen ere.

Traba bakarra aipatu digu Matxainek: "abenduan lip-dub bat egitea oso zaila da. Euriarekin ezin da egin grabazio datak aldatu behar izan ditugu". Hala ere, "orain artekoak itxura ona du", esan digu sortzaileak.

Azken puska

Iganderako grabazioaren zati handiena utzi dute. Irurtzungo kirol, kultur eta gizarte taldeetako kideekin batera arakildar eta irurtzundar ugarik ere parte hartuko dute grabazioan. "Behar bezala antolatzeko taldeekin aurretik hiruzpalau bilera egin ditugu eta bakoitzak badaki zer egin behar duen. Eta jende gehiago agertzen bada, kokatuko ditugu".

Matxainek aitortu digu jende askorekin lan egitea zaila dela, baina bai haiek bai parte-hartzaileak animatuta daudela ziurtatu digu. Grabazioaren inguruan aurreratu digun bakarra da Irurtzun Telebistako (ITB) Lore eta Ibon izanen direla istorioa lotzen dutenak. Igandeko uzta abenduaren 29an, astelehenean, 18:30ean eta 19:00etan ikusteko aukera izanen da kultur etxean. Lip-dub-arekin batera ITBren saioen unerik onenak eta Gure Esku Dagoko irudiak emanen dituzte.

» Uharte Arakil

Gozogintzan hamar

Ostegun arratsaldean Donibane jubilatu elkarteak X. Tarta Lehiaketa hartu zuen. 16 izan ziren lehiaketan parte hartzera animatu ziren bazkideak. Haien artean hiru gizon zeuden. Lehiaketaren ondoren, giro ederrean, ekitaldiak erakarritako 80 bat pertsonen artean dastatu zituzten, cavak lagunduta.

Javier Barbarrinek (Iruñeko gozogileen elkarteko presidentea), Eduardo Lopezek (itxitako Altsasuko gozogintza eskolako irakasle ohia), Esther Lancharesek (aipatu eskolako idazkari izandakoa) eta Juan Carlos Oteizak (jubilatu elkarteko presidentea) osatu zuten epaimahaia. Aurkeztutako tarten maila ona nabarmendu zuten, urtetik urtera maila hobea dela azpimarratuz.

Parte-hartzaileak: Paki Sanchez, Presen Gorriti, Lourdes Etxarri, Ana Barandiaran, Eduardo Gonzalo, Luzia Lacalle, Angel Andres, Elena Mauleon, Margari Tadero, Ester Arrizabalaga, Izaskun Gorriti, Juan Mari Mugika, Mª Cruz Orze, Ana Mª Garro, Marivi Lizarraga eta Domi Berastegi. UTZITAKOA

Lehen saria Luzia Lacalleren frutadun merenge tartarendako izan zen (49 puntu). Bigarrena Domi Berastegiren tiramisuak eskuratu zuen (44). Hirugarren Ester Arrizabalagaren bizkotxo eta esnegain tartarendako izan zen (43). Anana eta sagar tarta banarekin laugarren postuan berdindu egin zuten Eduardo Gonzalok eta Mª Cruz Orzek (41).

» Altsasu

Neguko solstizio ikuskizuna

Igandean, 19:30ean Dantzaleku eta Usolarrainen

Altsasuko herri-istorioak, mitoak eta legenden artean daude jentilak, momotxorroak, lamiak, Gonagorria, Mari, Mainamikirri sorgina, fara-joleak eta beste hainbat. Guztiak Usolarrainen elkartuko dira etzi, iluntasunak goia jo duenean eta argitasuna bidea egiten hasten denean. Egubera taldeak antolatu du neguko solstizioko ospakizuna atzera ere. Hainbat kidek aipatu pertsonaien papera jokatuko dute, erdigunean sua protagonista delarik. Atzera ere izaki mitologikoak deitu dituzte, neguan lagundu dezaten.

Mitologiako pertsonaia ugari agertuko dira Usolarrainen etzi. ARTXIBOA

» Ziordia

Ezkerrean hondakin meta.

Udalak Aralurko hondakin pilak kentzeko eskaera berretsi du

Ziordiko Udala azaroan atzera ere Nafarroako Gobernuko ordezkariekin batzartu zen. Aralur enpresaren inguruan dauden hondakin metak handik kentzeko eskaera berretsi zuen udalak. Jesus Arrese alkateak jakinarazi digunez, "pala batekin hondakin metetan laginak egin zituzten eta ongi konpostatzen ari dela ikusi zen. Arresek udalaren nahia berretsi digu: "Hondakin meta horiek erretiratzea nahi dugu, inori ardurak eskatu gabe". Alkateak azaldu digunez, Nafarroako Gobernua aukerak aztertzen ari da. "Hainbat aukera daude, baina kostua da gakoa. Ez dago dirurik eta hauteskunde atarian gaude".

» Arbizu

Elkartasun Eguna prest

Bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko azoka, herri bazkaria eta kontzertuak Arbizun

Arbizuko elkartasun taldeak, Argi Bidea gazte elkarteak eta herriko hainbat tabernek –Karrika, Baxerri, Jubilatuen Taberna, Arrauts eta Kiroldegiko taberna– Elkartasun Eguna antolatu dute biharko, larunbaterako. Antolatutako ekitaldiekin euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatu nahi dute.

Goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak artisautza eta eskulan azokak, plazan. Euria ari badu, pilotalekuan izanen da. 14:00ak bitartean gozatu ahal izango da azokaren eskaintzaz. Ondoren herri bazkaria hartuko du Aldabide elkarteak, 14:30ean. Txartelak ohiko tokitan daude salgai. Eta giroa borobiltzeko gauean kontzertuak antolatu dituzte Argi Bidea elkartean. Northern Pride taldea igoko da oholtzara, eta ondoren sorpresaren baterako tartea egongo da.

» Altsasu

Aldasoro bosgarren Euskal Herriko Txistor Lehiaketan

Asteazkenean jokatu zen Ordizian lehiaketaren 17. edizioa eta Jose Ramon Erauskin ataundarrak jantzi zuen txapela. Gipuzkoako harakinen elkarteak eta Ordiziako Udalak antolatutako lehiaketara 51 txistor ekoizle aurkeztu ziren. Bosgarrena Altsasuko Aldasoro Harategiak eskuratu du. Juan Jose Aldasoro Sarasuak eta Jose Galanek lehiaketa hori 2009an irabazi zuten.

» Hiriberri

Bi baso lantegi enkantean

Hiriberriko Kontzejuak enkante bidez bi baso aprobetxamendu saldu nahi ditu. Aurrena 2.965,89 larizio pinu oinek osatzen dute, 1.851,8m3 zur eta 1.114,3m3 egur kubikatzen dutenak. Kontzejuak lantegiagatik 48.535,62 euro eskatu ditu. Bigarren aprobetxamendua 374 alertze oinez osatuta dago eta haietatik 143,2m3 zur eta 47,7 m3 egur atera daitezke. Harengatik 3.294,32 euro eskatzen ditu kontzejuak. Biengatik, guztira, 51.829,94. Haietan interesa duenak bere eskaerak Arakilgo udaletxean aurkeztu beharko ditu hilaren 29a baino lehen.

» Altsasu

Askapenak 2015 brigadak aurkeztuko ditu

Gaur, 19:00etan, gaztetxean

Udan Gaztelan izan diren Askapenako brigadistek euren bizipenen eta herrialde hari buruzko argibideak emanen dituzte. Horren ondoren erakunde internazionalistak heldu den urterako prestatu duen brigaden eskaintza aurkeztuko du. Haien bidez "beste herrietako borrokak ezagutu eta esperientziak elkar trukatzeko" aukera eskaintzen da. Askapenatik adierazi dutenez, "herrien arteko elkartasuna baina gehiago dira azken batean; borrokan ari garen herrion arteko aitortza bat, jarrera eta ardura, arnasa, esnatzea".

Udan Palestinaren aldeko ekitaldia egin zen Arbizun.

Joan den urtean Argentina, Uruguay, Venezuela, Bolibia, Palestina eta Saharar lurralde okupatuez gain, pasa den urtean, Gaztela, Aragoi eta Herrialde Katalanetara brigadak antolatu zituen Askapenak. 2015erako eskaintza zabaltzeko asmoa du eta horren berri www.askapena.org atarian emanen du. Izen ematea martxo akaberara arte egonen da zabalik.

» Etxarri Aranatz

PPk udalak Etxerat-i emandako dirulaguntza salatu du

Aurtengo udal aurrekontuetatik presoen senideen elkarteari 4.000 euro ematearen kontra azaldu da Juan Antonio Extremera PPko zinegotzia. Aldi berean, alkatea kritikatu du Sare mugimenduaren aurkezpenean presoen senideekin batera prentsaurreko batean egon zelako larunbatean. "Ez dut ulertzen udalak zergatik izan behar duen ETAren inguruaren irudia". Senideenak arazo pertsonalak direla, ez herri guztiarenak nabarmendu du PPko kideak.

» Ziordia

Santa Luzia mokaduak

Igerileku parean zegoen garai batean Santa Luzia ermita Ziordian. Badira lauzpabost hamarkada hura eraitsi zela eta harako erromeria galdu zela. Hala ere, ziordiarrek ospakizunari eusten diote. Larunbatean herriko tabernek jatekoak eskaini zizkieten bezeroei. Gaztetxean ere jan-edanak eman zituzten. Trikitixa doinuak ere izan ziren.

SAKANA

Sakana hondakin organikoen balioztatzearen inguruko Europako proiektu bateko kide

Ikerketa, prestakuntza eta lanpostuak sortzeko potentzialtasuna aztertuko dira

Valorg proiektua aurrera eramateko Sakanako Mankomunitateak eta Europako Batzordeak akordioa azaro akaberan sinatu zuten. Europako Batasunaren prestakuntza bidezko lan sorkuntza markoaren barruan, Progress programan kokatuta dago Valorg proiektua. 18 hilabeteko iraupena izanen du programak eta hura garatzeko Mank-ek 180.000 euro jasoko ditu

Sakanarekin batera Frantziako, Belgikako, Eslovakiako eta Txipreko erakunde, enpresa eta unibertsitateek eramanen dute aurrera. Otsaila hasieran Estrasburgon elkartuko dira guztiak estreinakoz. Estatuko proposamena Mank-ek kudeatuko du eta bera buru duen klusterra sortu du Kerabi eta Vermican enpresekin eta Sakanako Garapen Agentziarekin batera. Proiektuaren buru Hondakin Zerbitzuko Olatz Garde Mazkiaran teknikaria da eta koordinazioaz Iker Manterola garapen agentea arduratuko da.

Klusterreko kide guztiak prestakuntza lanetan ariko dira; Kerabiko kideak hondakin organiko sortzaile handiekin eta gainerakoak konpostarekin. Bestalde, azterketa lanak Sakanako Garapen Agentzia eta Mank arituko dira. Azken erakunde horren egitekoa izanen da txostenak erredaktatzea.

Mank-eko langilea auzo-konpostagailua begiratzen. ARTXIBOA

Egitekoak

Valorg programaren barruan lau jarduera eramanen dituzte aurrera. Batetik, ibarreko hondakin organiko sortzaile nagusiak identifikatuko dituzte eta kalitate oneko banaketa sustatu enpresa edota komertzio horietako langileei zuzendutako prestakuntzaren bidez. Bestetik, Valorg programaren bidez auzo-konpost guneen jarraipena egiteko boluntario sarea sortu nahi da, horren truke prestakuntza eskainiz, maisu konpostatzaileak trebatuz.

Arbizuko hondakindegian konpost planta bat sortzeko aukerak aztertuko dira Valorg programaren bidez. Ibarreña sortutako hondakin organiko guztia han konpostatzea litzateke asmoa. Aldi berean, lanpostuak sortzeko ikuspegiarekin, konposta komerzializatzeko dauden aukerak aztertuko dituzte. Azkenik, Europako programa horren bidez hondakin organikoen kudeaketak Sakanan lanpostuak sortzeko duen potentziala aztertuko da.

» Etxarri Aranatz

Birziklapen etxola erabilgarri

Hondakin bereziak jasotzen dituen etxola larrialdi gune ondoan dago, Malkorramendi auzoan

Lastailaz geroztik erabilgarri dago birziklapen etxola finkoa. Materia organikoa, kartoia edo papera, ontzi arinak edo errefusa ez diren hondakinak jasotzen dira birziklapen etxolan. Orain arte hondakin horiek Arbizuko hondakindegian edo Garbigune mugikorrean uzteko aukera zegoen. Baina goizez lanean ari direnek ezin izaten dute zerbitzu hori erabili. Horri konponbidea emanen dio etxolak.

Sakanako Mankomunitatearen eta Ekogras enpresaren elkarlanaren fruitu da etxola. Proba pilotua da eta Mank-i dohainik atera zaio. Enpresak diseinatu, eraiki eta instalatu du etxola. Mank, berriz, hondakinen bilketaz arduratzen da. Hondakinen Zerbitzuko teknikari Olatz Garde Mazkiaranek jakinarazi digunez, "Azaro hasieran lehen bilketa egin genuen eta 40 bat pertsonek erabili zutela kalkulatzen dugu. Pertsonako 5 bat kilo inguru utzi zituzten. Gehienbat elektratresnak eta motorreko olioa jaso zen".

Gardek azaldu digunez, "Garbigune mugikorrak gehien Etxarriko azokan jasotzen du. Ikusi beharko da jendea batetik besterа aldatzen den edo biak erabiltzen dituen. Arlo guztietan, oraindik goiz da eragina neurtzeko".

Zer jasotzen du?

Elektratresna txikiak, gailu elektroniko txikiak, autoetako bateriak, CDak, DVDak, VHS zintak, kaseteak, merkuriozko termometroak, pilak, erradiografiak, aerosol beteak edo erdi beteak, disolbatzaileak, garbiketa produktuak, tinta, tonerrak, margoak, brotxak, motor olioa, fluoreszenteak, kontsumo baxuko bonbillak eta bonbilla alogenoak.

Etxarriar bat birziklapen etxola erabiltzen.

»

Jendaurrean aurkeztuko dituzte hondakinei buruzko kontsultaren emaitzak

Astelehenean, 18:00etan, kultur etxean izanen da batzarra

Etxarriarrek hondakin bilketa sistema berriaren inguruan duten iritzia jasotzeko udalak galdetegi bat zabaldu zuen herrian. Etxarriarrek azaroaren 13 eta 30a bitartean hura erantzuteko aukera izan dute. Jasotako emaitzak astelehenean ezagutzera emanen ditu udalak. Aztiker enpresako ordezkariek emanen dituzte emaitza horien berri. Haiekin batera izanen dira udaleko eta Hondakin Batzordeko ordezkariak ere.

Hondakin Batzordeko kideak etzidamuko aurkezpenean izanen dira.

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria martxan jarri zuela 17 hilabete pasa dira. Hondakinen Batzordearen proposamenez, Etxarriko Udalak konpromisoa hartu zuen behin sistema probatuta etxarriarrei kontsulta egiteko. Beraz, etxarriarrak euren esperientziatik abiatuta, sistema berriaz zer iritzi duten eta hondakinen bilketa hobetzeko zer proposamen dituzten jakiteko egin du kontsulta udalak.

» Etxarri Aranatz

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sarea osatuz

Presoen senideak eta Sare-ko kideak larunbateko aurkezpenean.

Dokumentala eta erakusketa aurkeztu eta konpromiso bilketa abiarazi dute. Aldi berean, ilbeltzaren 10ean Bilbon Now Euskal Herrira mobilizazioan parte hartzeko deia egin dute. Zenbait herritan autobus txartelak salgai daude dagoeneko

Sentsibilitate ezberdinen arteko herritarrek Sare sortu dute. Euskal preso, iheslari eta deportatu zein bere inguru hurbila barnebildu nahi ditu, guztien etxeratzea ahalbideratuko duen sare herritar bat ehunduz. Aurrenekoei legez dagozkien eskubideak berrezartzeko helburuarekin eginen du lan Sarek, besteak beste presoen sakabanaketa politikarekin bukatzea.

Aurkezpenean adierazi zutenez, "sufrimendua dakarten neurriekin bukatu beharra dago. Ezinbestekoa izanen da euskal jendartea osatzen dugun guztion arteko zatiketa gainditzeko batetik; giza eskubide guztien errespetua bermatzeko bestetik, eta euskal gizarteak bizi duen gatazkari benetako konponbidea emateko azkenik".

Horretarako, herritar bakoitzaren konpromisotik abiatuta, Sarek eragile ezberdinen aktibazioa lortu nahi du: "norberaren aukera, errealitate eta eremutik abiatuta pertsona bakoitzaren ekarpena hauspotu eta sustatzea". Herriko, Sakanako eta, oro har, Euskal Herriko bizitza sozial zabalaren elkarlana bilatu eta bultzatu nahi du Sarek.

Dinamika

Sarek Etxarrin eta Sakanan euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko dinamika bat aurrera eramanen du eta haiek "pairatzen dituzten eskubide urraketa horiekin amaitzeko sakandarron konpromisoak" bilduko ditu. Egiteko horretan, lehenik, *Urruti vs gertu* dokumentala aurkeztuko dute ibarrean barna. Film horretan "senideen testigantza, sakabanaketa politikaren salaketa eta, azken batean, euskal preso politikoen eskubideen aldeko aldarrikapena" jasotzen da.

Bestetik, *Dispertsioaren aurpegiak. Sakabanaketa politikak eragiten duenaz* erakusketa ikusgai jarriko du Sarek Etxarrin, gerora Sakanan zabaltzeko. Bestalde, sarekideek herriko eragile eta norbanakoekin harremanetan daude konpromiso zerrenda bat adostu, osatu eta haiekin konpartitzeko, haiek bete eta jasotzeko.

Erakusketaren ordutegia

Etxarri Aranazko kultur etxean

Abenduak 20, larunbata, 18:30etik 20:30era .

Abenduak 26, ostirala, 21:00etatik 22:00etara.

Abenduak 27, larunbata, 17:00etatik 19:00etara.

Abenduak 28, igandea, 17:00etatik 21:00etara.

Ilbeltzak 3, larunbata, 18:00etatik 20:30era.

Ilbeltzak 4, igandea, 17:00etatik 21:00etara.

Dokumentalaren emanaldiak

>> Ilbeltzaren 3an, larunbatean
19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

>> Ilbeltzaren 4an, igandean
18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

>> Ilbeltzaren 8an, ostegunean
19:30ean Arbizuko udaletxean.

>> Ilbeltzaren 9an, ostiralean
19:00etan Olatzagutiko kultur etxean.
20:00etan Irurtzungo kultur etxean.
20:00etan Urdiaingo udaletxean.
21:30ean Bakaikuko udaletxean.

>> Ilbeltzaren 11n, igandean
19:00etan Iturmendiko auzo-gelan.

SAKANA

Abeltzainendako argibideak

Europako Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) berria azaltzeko eskualdez eskualdeko bilera erronda egiten ari da Jose Javier Esparza kontseilaria. Astelehenean Irurtzunen izan zen 60tik gora abeltzainen aurrean etorriko den Europako politikaren inguruan argibideak ematen. NPBko ildo nagusiak aletu eta haren konplexutasuna nabarmendu zuen. Eskubideak berritu beharko direla eta Nafarroako Gobernuaren nahien berri eman zuen. Bileran izan ziren abeltzainetako batzuk adierazi digutenez, berritik ezer gutxi kontatu zuen. Bakarren batek hauteskunde aurreko mitin baten itxura ere hartu zion.

Abeltzainak kontseilariaren azalpenak entzuten.

» Arbizu / Olatzagutia

Bat libre, besteari sei urteko espetxe zigorra

Segiko kide izateagatik epaituak izan diren Ainara Ladroni akusazioa erretiratu dio fiskalak eta Imanol Salinasi sei urteko espetxe zigorra eskatu dio

Gaur bukatuko da irailaren 22an hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalean 28 euskal gazteren kontrako epaiketa. Guztiei Segiko kide izatea eta beraz "erakunde terroristako kide" izatea leporatzen zaie (hala izendatu zuten Segi 2007an). Fiskaltzak gazteen kontrako zigor eskaerak haiei inkomunikazio aldiko deklarazioetan eta auzitegi berak garagarrilean absolbitu zituzten 40 gazteen deklarazioetan oinarritu ditu. Deklarazio horiek torturapean atera zizkietela salatu dute gazteek epaiketan zehar.

Batzuk libre uzteko eta beste batzuendako zigor eskaera mantentzeko fiskalak ez zuen arrazoi argirik eman, eta Espainiako auzitegiaren irizpideetan ere ez du oinarririk. 28 gazteek epaiketa hasi aurretik adierazi zuten garagarrilean akusazio bera zuten 40 gazteak absolbitu bazituzten haien kontrako epaiketak ez zuela zentzurik. Epai hartan epaimahaiak balioa kendu zien inkomunikazio aldiko deklarazioei.

» Altsasu

Herri denda zabalik

Foru plazan dago, astegunetan 17:00etatik 20:00etara, baita asteazken eta larunbatetan ere 12:00etatik 13:00etara

Asteburuan zabaldu zituen ateak Herri Dendak. Hainbat erakundek elkar hartu eta lokala aldi baterako hartu dute. Han erakunde eta herri mugimenduek euren lanaren berri ematen duten ekoizpenak edo euren jarduna finantzatzeko arropa, agenda, liburu eta bestelakoak opa daitezke.

» Etxarri Aranatz

Herri denda zabalik

Ilbeltzaren 3ra arte, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, herri mugimendu eta erakundeen materiala salgai izanen da

Etxarri Aranazko plazan, kiosko parean, atzera ere herri dendak ateak zabaldu ditu. Handik pasatzen denak hainbat erakunderen arropa, agendak, liburuak, komikiak, postalak eta bestelakoak eskuratzeko aukera izanen du. Aurtengo berritasuna artilez egindako arropen eskaintza zabala da. Udazkenean adin guztietako etxarriar talde batek puntu tailer batean parte hartu du. Haur, gazte eta helduek artilea lantzen ikasi dute eta tailerrean egindako txano, lepoko eta bestelakoak presoen senideen gastuei aurre egiteko salgai jarri dituzte. Bestalde, herri dendako kudeatzaileek jakinarazi dute bi saski eder zozketatuko dituztela.

SAKANA

Pentsioen sistema publikoaren defentsan

Aurretik Irurtzungoan eta Etxarri Aranazkoan egin bezala, Sasoia, Nafarroako jubilatuen elkarteak gaur kontzentrazioa egin du Altsasuko azokan. Sasoiako kideek adierazi dutenez, "pentsioen sistema publikoa ez dago krisian, baina botereak hori desagerrarazi nahi du". PPren gobernuari pentsioak "arriskuan jartzea" leporatu diote. Horregatik, pentsio sistema publikoa defendatzeko deia egin dute Sasoiako kideek. "Pentsioen fondoa ez da langileriaren dirutik bakarrik hornitu behar, metatzen den ondasun eta aberastasun orokorretik baizik".

» Altsasu

Lau altsasuar gehiago inputatuta

Astearte an lau altsasuar Guardia Civilaren Iruñeko komandantziara deituak izan ziren, ustez terrorismoa goratzeagatik inputatuta daude. Abokatuarekin lagunduta joan ziren eta ez deklaratzea erabaki zuten. 2013an Foru plazan presoen argazkiak jartzeagatik deitu dituztela jakin ahal izan zuten. Guardia Civilak zitazioak astelehenean 22:45 aldera banatu zizkien.

Irailaren 26an beste sei altsasuar pasa ziren egoitza beretik. Orduan Guardia Civilak jakinarazi zien deialdiak herriko festetan presoen alde egindako brindisarekin zerikusia zuela. Nafarroan udan izan diren ekitaldiengatik antzeko egoeran gutxienez 138 nafar daudela jakinarazi dute. Zitazioak "beldurtzeko beste modu bat" direla azaldu eta presoen Euskal Herriratzea eskatzen segitzeko deia egin dute.

SAKANA

Espetxe politikaren kontrako protestak

Euskal presoek Frantzian betetako espetxeurteak kontuan hartu eta Espainian bete beharrekoei kendu behar ote zaizkien aztertu zuen atzo Espainiako Auzitegi Gorenak. Erabakia ilbeltzaren 13rako atzeratu du. Hori dela eta, Sortuk deituta atzo arratsaldean hainbat kontzentrazio egin ziren, Espetxe politika kriminalari stop! Presoak etxera lelopean. Espainiako Gobernuak euskal presoen aurka hartzen ari den neurriak salatu zituzten.

SAKANA

Artisauen lanak erosteko, zorri azoka

Gabonetako erosketei begira, gaur, ostiralean, Altsasun zabalduko dute Zorri Azoka, 16:30ean eta igandean Etxarri Aranatzen, 10:00etan

Zorri azoka edo azoka soziala hilero antolatzen da Etxarri Aranatzen, hileko lehen igandean. Helburua Sakanako eta gertuko artisauek eta nekazariek euren lana erakusteko eta saltzeko tokia izatea da. Gabonetako erosketei begira, Zorri azoka ostiralean Altsasura ekarriko dute –16:30etik 20:30era Gure Etxean– eta igandean Etxarri Aranatzera –10:00etatik 15:00etara pilotalekuan–.

Azokara hurbiltzen direnak bertako barazki ekologikoak, bertako artisautza, bertako produktuak, artea, musika eta beste opatuko ditu: bitxiak, motxilak, puntu eta gantxilloz egindako gauzak, eskuz egindako libretak, egurrean landutako altzariak, egurrezko jostailuak, barazkiak, pastak, ukenduak, produktu ekologikoak… Altsasun Gure Etxean egonen dira postuak ikusgai, gaur. Eta Etxarri Aranatzen, pilotalekuan, etzi. Etxarri Aranatzen 40 artisau inguru espero dira eta ohiko postuez gain, herri erakundeetako informazioa eta produktuak ere jarriko dira salgai eta 12:00etarako txokolatada antolatu dute. Bestalde, ilbeltzeko Etxarriko ohiko zorri azoka ilbeltzaren 4an izanen da, goizez, estalopean.

Denetarik opatu daiteke Zorri Azokan. ARTXIBOA

Gobernuari ETB ikusteko bideak aztertzeko eskatu diote

Nafarroako Parlamentuko batzorde baten bilera.

Altsasuar talde batek Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako mozioa da onartutakoa

Gaur egun ETBren kanalak sistema analogikoan ikusten dira, baina bi aste barru haiek bukatuko dira. Epeak betez gero, urte berriarekin euskarazko telebista ikusteko aukerarik gabe gelditukо gara. Hori dela eta, kezka sortu zien altsasuar talde bati. Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) bidez ETB ikusteko berme eske Nafarroako Parlamentuko taldeengana jo zuen eta mozio proposamena proposatu zien.

Asteartean Nafarroako Parlamentuko Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Erlazioak Batzordeak gaia aztertu zuen. Parlamentuko talde guztiek aho batez onartu zuten Nafarroako Gobernuari eskatzea LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak azter ditzala. Aldi berean, PSNk, Bilduk, Aralar-NaBaik, I-Ek eta Geroa Baik Nafarroako Gobernuari eskatu zioten ETB Nafarroan lehenbailehen ikusteko modua bilatzeko, dela sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako formulen bidez. Bigarren puntu horretan UPNk "legearen markoan" testua gehitzea eskatu zuen. Gainontzeko taldeek ez zuten beharrezko ikusi, Nafarroako Gobernuaren jokabidean hori suposatzen delako.

Euskararen Legea eta hedabideak

Euskarazko hedabideek Nafarroan hizkuntza berreskuratzeko eta garatzeko egiten duten lanaren garrantzia eta nafarrei eskaintzen dien zerbitzua aitortu zuen joan den asteko ostegunean Nafarroako Parlamentuak. PP ez beste talde guztiak alde bozkatu zuten.

Aldi berean, UPNk eta PPk ez beste talde guztiek Nafarroako Gobernuari Euskararen Legeak hedabideei dagokiena betetzeko eskatu zioten. Horrekin batera, euskarazko hedabideen bizi-iraupena eta martxa egonkorra bermatzeko haiekin hitzarmenak adosteko eskatu zioten Nafarroako Gobernuari. Azkenik, heldu den urteko aurrekontuetan euskarazko hutsezko hedabideei lehentasuna ematen dien diru-laguntza emateko egoki hornitutako diru-saila onartzea eskatu zioten Nafarroako Gobernuari .

Xaloa Telebistaren aldeko diru-bilketaren azken egunak

Lau egun barru itxiko da Iruñerrirako emankizuna ahalbideratuko duen tresneria ordaintzeko beharrezko diru bilketa

Iruñerrian euskara hutsean emitituko duen Xaloa Telebistak emisorea eta bi errepikagailu erosteko 50.000 euro behar ditu. Diru horri lortzeko diru-bilketa kanpaina martxan jarri da. 40 egunetan lortu nahi da diru kopuru hori. Lau egun besterik ez dira falta epea bukatzeko. Dagoeneko eskatutako diruaren %69 lortu da, 34.990 euro. Edozein diru ekarpen egin daiteke, baina mugarri batzuk gainditzen dutenek saria jasoko dute. Nafarroako euskalgintzak Xaloa Telebistaren proiektuari bultzada ematera deitu du, "euskara hutsezko programazioaren bidez euskal kulturari esparru zabal eta garrantzitsua irekiko diolako". Elo eta Ezkaba mendietan errepikagailu bana jarrita seinalea Iruñerri guztira zabaldu nahi du Xaloak. Gainera, orain erosten den multiplex emisorea lizentzia banaketan bana eskuratu zuten Hamaika eta Abian telebistek erabiltzeko aukera izanen dute.

Diru ekarpenak non

Internet-en: Karena plataforman: http://karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-irunerrian
Eskuz: Iruñeko Karrikiri Euskal Dendan (Xabier karrika 4) eta Katakrak Liburudendan (Kale Nagusia, 54) ditu. Norberak erabaki dezake zer preziotan erosi.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidai mezua **zorion@guaixe.net** -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.
Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Elai Alai dantza taldean ikasturte osorako irakasle baten beharrean gaude. Lana larunbat goizetan da. Interesatuak elaialaikuntza@gmail.com helbidera idatzi edo Evarekin kontaktuan jar daitezela: 646 40 31 20.

Harakina behar da Goierrin. Esperientziaduna eta langile fina. Interesatuek hots egin dezatela 635 75 83 75 telefonora.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Sakanan liburu-denda eskualdatzen da. Interesatuek hots egin dezatela 666 79 43 53 telefonora

Apartamentua alokatzen da. Altsasun. Jantzita. Hots egin 660 87 75 00 telefonora eguerdian edo 19:00etatik aurrera.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Haur silleta. Euritik babesteko plastikoa galdu nuen Arbizun. Telefonoa 667 26 67 46.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Etxarriko irakurketa taldea. Abenduaren 20an, 19:00etan, Fermin Etxegoienen "Autokarabana" liburuaz hitz egitera elkartuko dira Etxarri Aranazko liburutegian.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki saituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntza-beka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta osteguetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gaztegunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

JAIOTZAK

- **Laida Mendia Eskisabel,** abenduaren 9an Iturmendin.
- **Julen Galarza Caravaca,** abenduaren 10ean Altsasun.
- **Lukas Zelaia Lumbreras,** abenduaren 11n Altsasun.

HERIOTZAK

- **Maria Rosario Echarri Ibañez,** abenduaren 14an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaituen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaituen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaituek aisia behar dute. Laguntzailea izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaituen Elkartetik.

kirola >>

Pilota



Zubieta Asegarcera Berasaluzerekin aritzeko eta Ezkurdia-Zabaleta atzera ere elkarrekin

Asteburuan hasiko da 2015eko Binakako Torneoa

Asteartean aurkeztu zuten Binakako Pilota Txapelketa Erriberriko Marco Real upategietan.

ZUBIETA ASEGARCERA

Asegarce eta Aspe akordiora heldu dira eta Aitor Zubieta Asegarcera pasatu da txapelketak irauten duen bitartean. 5 hilabetez Asegarceko kide izango da etxarriarra, Berasaluze II.arekin bikotea osatzeko. Hori da txapelketaren ezusteko nabarmenena.

Asperen bikoak ondokoak izango dira: Irujo-Barriola, Ezkurdia-Zabaleta, Retegi Bi-Rezusta eta Xala-Merino II.a. Asegarcekoak, hurrengoak: Berasaluze II.a-Zubieta , Olaizola II.a-Beroiz, Bengoetxea VI.a-Aretxabaleta eta Artola-Albisu.

Txapelketa luze, gogorra eta orekatua aurreikusten da. Hori bilatu dute bi enpresek. Lehen fasean 14 jardunaldi jokatuko dira, eta bikote denek elkarren aurka jokatuko dute bi aldiz.

HIRU SAKANDARRAK LEHIAN

"Enpresek akordio bat lortu dute. Iritzia galdetu zidatenean baiezkoa eman nuen, inolako arazorik gabe. Ni gustura nago, Pablorekin udan jokatu dudalako. Hala egokitu zaigu, eta oso esperientzia polita da" azaldu zuen Aitor Zubietak aurkezpenean. Bestalde, Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak bikote moduan errepikatuko dute. Aurreko urtean hasieran asko kosta zitzaien txapelketan sartzea. "Urtebete gehiagoko esperientziarekin errendimendua hobetuko dutela uste dut" adierazi zuen Aspeko begirale tekniko Inaxio Errandoneak. Ikuskizuna hastera doa!

Binakako I. Jardunaldia

Bengoetxea VI.a-Aretxabaleta / Artola-Albisu (gaur, ostiralean, 22:00etan, Donostian. ETB)
Berasaluze II.a-Zubieta / Olaizola II.a-Beroiz (bihar, larunbatean, 17:00etan Iruñean).
Irujo-Barriola / Ezkurdia-Zabaleta (igandean, 17:00etan Eibarren. ETB1)
Xala-Merino II.a / Retegi Bi-Rezusta (astelehenean, Tolosan)

Mendia

Igandean mendiale asko bilduko dira Aralarren. N. MAZKIARAN

Goazen mendizaleak, Aralarrera...

50. MENDIGOIZALE EGUNA OSPATUKO DA IGANDEAN ARALARREN

Gabonen aurreko igandean urtero errepikatu ohi denez, Aralarko Santutegiak igandean Mendigoizale Egun handia hartuko du. Mendizaleek oso gogoko dute zita hau, besteak beste hildako mendizaleak oroitu, mendi klubetako gainontzeko mendizaleekin elkartu eta egun polita pasatzen dutelako. 1964.ean urte horretan hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepikatu izan da. Hortaz, aurtengoa mendizaleen festaren 50. edizioa izango da.

Gehienek oinez joko dute Aralarrera. Askok Uharte Arakilgo bidea aukeratuko dute, baina Sakanako Mendizaleak taldetik Lakuntzatik abiatzeko deia egin dute, eta egongo da Madotzetik, Lizarrustitik eta Lekunberri aldetik joko duenik. Aralarren, hildako mendizaleen oroimenezko meza izanen da 10:45ean. Mendizaleek euren mendi materiala bedeinkatzeko eta Mikel Goiaingeruari musu emateko aukera izango dute. Segidan hamaiketakoaren txanda izango da, kanta eta dantzen tartea.

Egitaraua

8:30ean Aralarko San Migelera igoera, klub bakoitzak aukeratu duten bidetik abiatuta.
10:45ean Meza Aralarko Santutegian.
11:30ean Hamaiketakoa.
13:00etan Festa bukaera.

* Trikitixa eta panderoaren doinuek festa girotuko dute.

Urteurren borobila

Egun polita izaten da Mendigoizale Eguna, mendizale guztien bilgune, joandakoak oroitzeko eta aspaldiko mendizaleak ikusteko eguna. Gainera, urte bukaera ospatzeko modua ere bada. Nafarroako Mendi Federazioak herritar guztiei igandean Aralarren biltzeko gonbita egin die eta jende asko eta giro beroa espero da Aralarren.

Aralarren bi meza

Mikel Goiaingeruaren Kofradiatik adierazi digutenez, Mendigoizaleen eguna dela eta bi elizkizun izanen dira igandean Aralarren. Mendigoizaleena 10:45ean izanen da, eta iganderoko ohiko meza, aldiz, 12:30ean. Bide batez, Kofradiak Eguberri eta Urte Berri on bat opa die Guaixeko irakurle guztiei.

Pala

Azken txanpa IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketan

Asteburuan azken jardunaldia eta finalaurrekoak daude jokoan

26 bikote ari dira lehiatzen IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketan. Hasierako ligaxkako 3 jardunaldi jokatu eta gero, asteburu honetan kategoria batzutan 4.eta azken jardunaldia jokatuko da –onenak zuzenean pasako dira finalera– eta beste kategoria batzutan finalerdien txanda izango da. Partidak Etxarri Aranazko eta Altsasuko pilotalekuetan jokatuko dira.

Asteburuko partidak

Benjaminak:
Miren-Maialen / Maria-Ane
Kimuak:
Elorri-Ane / Maddi-Irantzu
Haurrak:
June-Naroa / Saioa-Amaiur
Uxue-Ainhoa / Elai-Luzea
Kadeteak:
Irati-Aroa / Oihane-Naroa
Helduen 2. Maila (final erdiak):
Ane-Miriam / Igone-Leire
Lopez de Luzuriaga-Suarez / Andrea-Izar
Helduen 1. maila
Ainhoa-Maddi / Amaia-Nagore
Yanira-Rebeka / Maite-Saioa

Gimnasia erritmikoa

Gabonetako erakustaldia igandean

Iskiza Sakana gimnasia erritmiko taldeak orain arte landutako koreografiak eskainiko dituzte igandean, 11:30ean, Burundan

Iskiza Sakanak Gabonetako erakustaldia egingo du igandean Altsasuko Burunda pilotalekuan, 11:30ean. Bertara joateko gonbita egin dute.

Iskiza Sakanan 4 urtetik aurrerako gimnastak biltzen dira, aurrebenjamin, banjamin, kimuen, haurren, juniorren eta seniorren kategorietan. Nafarroako Herri Kirol Jolasetan lehiatzen dira eta baita estatu mailan. Monitoreak Josune Ruiz, Amaia Olmo, Cristina Remolina, Maria Remolina, Nerea Llamas, Olaia Agirre, Olaia Granizo eta Cristina Nuncio dira.

Espainiako Txapelketatik pozik

Asteburuan Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen Zaragozan. Iskiza seniorren taldean Cristina Nuncio, Nerea Llamas, Olaia Agirre, Olaia Granizo, Maria Remolina eta Cristina Remolina aritu ziren, Amaia Olmo entrenatzailearen esanetara. 43 talde parte-hartzaileetatik Iskiza 27. postuan sailkatu zen, sailkapenaren erdian.

Espainiako txapelketan aritu ziren Iskizako gimnastak.

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak
INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK
- Su-itzalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...
ESKAINTZA BEREZIAK
- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak
Iruñea
948 382 271 - Matxurak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua
Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA
• Nola moldatu nerabeekin
• Umeekin arazoak, zalantzak
• Adimen emozionala...
Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS
Jose Larraza Legarra
Etxebizitzen administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378
Bizilagunen komunitateak
Etxebizitzen administrazioa
Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraza@gmail.com

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Atletismoa

Izaskun Beunza bigarrena Txantreako herri krosean

Migel Aristu eta Ana Ollo izan ziren irabazleak

Igandean jokatu zen 23. Txantreako herri krosa (8 km). Arrakastatsua izan zen, 1.100 korrikalari aritu baitziren proba nagusian eta 390 neska-mutiko kategoria txikikoen proban. Migel Aristu (2:46) eta Ana Ollo (28:25) izan ziren azkarrenak. Izaskun Beunza olaztiarra bigarrena izan zen (31:48).

Areto futbola

Bikain jokatu zuen Magnak.

Magna Nafarroa Xota Espainiako Koparako sailkatu da

Uruguay Tenerife taldeari 4-1 irabazi zioten Imanol Arregiren mutilek

Magna Nafarroa Xotak lortu du helburua: martxoan Ciudad Realen jokatuko den Espainiako Koparako sailkatzea. Imanol Arregiren agindutara 10. aldiz ariko dira irurtzundarrak Kopan.

Koparako sailkatzeko Uruguay Teneriferen kontra irabaztera derrigortua zegoen Magna Nafarroa eta Irurtzungo taldeak 3 puntuak lortu zituen etxean jokatutako partida lehiatuan, 4-1 irabazi eta gero.

Sailkapen orokorrean Bartzelona da lider (37 puntu). Magna Nafarroa 7.a da (23 puntu). Gaur, sailkapenean bosgarrena den Jaen Paraiso Interior taldearen kontra jokatuko du Magnak, 21:00etan, Jaenen.

Arbizu, Futsalsakana Txapelketako lider berria

Asteburu honetan 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketako 7. jardunaldia jokatuko da. Arbizu da lider berria, baina gauzak oso estu daude eta aldaketak egon daitezke.

7. jardunaldia

Ostiralean, Uharten
20:00etan: Hijos de ruta – Bunker
21:00etan: Back Street Boys – Racing San Migel
Larunbatean, Uharten
15:00etan: Arbizu KT – Arbizu harrobia
16:00etan: Auzomotojorik – Iturmendi

Xakea

Cinza xakelari onena Arruazun

23 xakelarik hartu zuten parte Arruazun jokatutako Sakanako Xake Txapelketan. Cesar Razkin etxarriarra izan zen Sakanako onena

Bezperan Sakanako kirolari onenen sariak banatu ondoren, Arruazuko herriaren etxeak Sakanako Xake Txapelketa hartu zuen larunbatean. Sakanako txapelketa, aldi berean, 1.900 ELO puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izan zen. Goizeko 9:30etarako bildu ziren txapelketan parte hartu zuten 23 xakelariak. Gehienak Iruñerrikoak ziren baina gipuzkoarrak eta galiziar bat ere zeuden tartean. Soilik 4 sakandar lehiatu baitziren: Sebastian Insausti arbizuarra, Koldo Flores lixarrengoarra, Markel De Migel lakuntzarra eta Cesar Razkin etxarriarra.

Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko 19:00etan despeditu zen txapelketa, eta lehia estu eta ederraz gozatzeko aukera izan zen. Tartean xakelariek tartea hartu zuten Arruazuko ostatuan bapo bazkaltzeko. 20 minutuko partidak jokatu ziren. Txapelduna Javier Cinza galiziarra izan zen, Orvina taldeko kidea dena. 120 euro eta txapela jaso zituen opari. Bigarrena Maria Goñi izan zen (90 euro eta trofeoa), bere garaian munduko txapelduna Iruñean ospatutako txapelketan. Javier Lasak osatu zuen podiuma (60 euro eta trofeoa). Sakandarren artean Cesar Razkin etxarriarra izan zen onena (30 euro), txapelketan 8.a sailkatu ondoren. Sebastian Insausti 11.a izan zen, Koldo Flores 13.a eta Markel De Migel 23.a. Bestalde, 16 urtez azpiko kategorian Ivan Iturralde izan zen onena (trofeoa), Josu Manterola bigarrena eta Martin Pascual hirugarrena.

Krisian?

Txapelketa Mank-ek antolatu zuen, Sakanako Zaldi Beltza Xake taldearen eta Arruazuko Udalaren laguntzarekin. Zaldi Beltzako Koldo Flores kideak adierazi zigunez, taldea ez dago bere onenetan eta Sakanan xakeak ez du momentu ona bizi. "Pentsa, Sakanako Xake Txapelketa, gurean antolatzen den bakarra, eta soilik 4 sakandar agertu gara. Sakanan xakea sustatzeko zer edo zer gehiago egin beharko du, bestela, gureak egin du" azaldu zigun.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

13. JARDUNALDIA

LAGUNAK 6 – LAGUN ARTEA 1
Lakuntzako Lagun Artea taldeak porrot izugarria jaso zuen Barañainen. Partida hasi eta berehala hasi zen agintzen Lagunak, eta 12. minuturako hasi zen iruindarren gol festa. Dena ateratzen zitzaien ongi eta lakuntzarrek ezin izan zuten Barañaingoen gol festa ekidin. Azken minutuan Burillok lakuntzarren gol bakarra sartu zuen.

Sailkapena >>
1. Mendi .....31 p
12. Lagun Artea .....12 p

Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA – AVANCE
(Igandean, 15:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

14. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 6 – ALTSASU 1

Ivan Gorriz atezaina. N.MAZKIARAN.

Erregional mailako bi talde sakandarren arteko derbyan Etxarri liderrak garaipen sendoa lortu zuen Altsasuren gainetik pasaz. Lehen minutuan Etxarriko Gorriz atezainak sakea atera zuen eta baloiak arean errebotatu ondoren, Altsasuren ate barruan bukatu zuen. Sekulako gola sartu zion Gorriz altsasuarrak bere lehengo taldea izandakoari, atetik, 90 metroko distantziatik. 13. minutuan Altsasuko atezainak penaltia egin zuen eta atezaina kanporatu zuen arbitroak. Ondoren Pablok eta Mikelek Etxarriren aldeko golak sartu zituzten, eta nahiz eta Altsasuko Dariok sartutakoarekin, 3-1 gerturatu, Etxarrik kontrolarekin jarraitu zuen eta Urkiak, Javi Ruedak eta Mikelek sartutakoei esker 6-1 irabazi zuen Etxarrik. Etxarri lider sendoa da eta 4 puntura du Arrotxapea.

Sailkapena >>
1. Etxarri Aranatz .....34 p
9. Altsasu .....21 p

Asteburuko jardunaldia
BERRIOZAR – ETXARRI ARANATZ
(Igandean, 12:00etan, Berriozarren)
ALTSASU – BETI KOZKOR
(Larunbatean, 15:45ean, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA. 2. fasea

2. JARDUNALDIA

BAR MIKEL 3 – EGIARRETA 4
Egiarreta da lider berria. Zalduak ez du bigarren fase honetan jokatzen.

Sailkapena >>
1. Egiarreta .....10 p

Asteburuko jardunaldia
EGIARRETA – ZUGAR
(Asteburuan Uharte Arakilgo zelaian)

Herri kirolak

Sakanako aizkolari beteranoei omenaldi beroa Bakaikun

Urte bukaeran ez du hutsik egiten Mank-ek antolatutako Sakanako Herri Kirol Jardunaldiak. Sakanako Aizkora eta Harrijasotze eskoletan egindako lana erakusteko modu polita da, herri kirolari sakandarren arteko desafioak egiteko zita paregabea eta urteari bukaera emateko aitzakia ederra. Aurten Bakaikun ospatu zen, jendez beteta zegoen frontoian.

Egun ederra

Aizkoran Goizeder Beltza-Juanjo Erdozia, Arkaitz Jauregi-Eloy Corchero, Juanjo Lopez-Angel Eraso eta Julen-Ivan Resano bikoteak lehiatu ziren, eta azkenak nagusitu ziren. Aizkolari gazteagoak ere lehiatu ziren: Aiestaran-Agirre eta Beñat-Abel, eta Jon, Aritz, Ibon eta Ander txikiagoak. Bitxikeria moduan, Erdozia etxeko hiru belaunaldi aritu ziren lanean: Juanito Erdozia aitona, Juanjo Erdozia semea eta Jon iloba, 11 urtekoa. 2 metroko zirkunferentziako enborra erdibitu zuten hiruren artean.

Iñigo Aritza ikastolako trontzalariak Andra Mari ikastolakoen kontra aritu ziren. Andra Mariko Jon eta Unai gailendu ziren. Bestalde, bi ikastetxe hauetako tiratzaileak ere lehiatu ziren sokatiran. Etxarri Aranazko Andra Mariko-ak nagusitu zitzaizkien Altsasukoei. Ondoren, Sakana Sokatira Taldeko nesken kontra aritu ziren Andra Marikoak, eta kasu honetan neskak izan ziren onenak. Sakanako Harrijasotze eskolakoen txanda izan zen segituan. Iñaki Iberok (100 kiloko bola), Alvaro Zugarrondok eta Jon Irañetak (100 kiloko kubikoa) eta Mikel Lasarte monitoreak (100 kiloko zilindrikoa) erakustaldia egin zuten. Eta Mikel Lasartek motozerrarekin eskultura bat egin zuen. Bukaeran, guztiak bazkari ederrean bildu ziren. Mank-etik eskerrak eman nahi dizkiete Bakaikuko Udalari eta Jesus Mari Artzari, "emandako laguntzagatik".

Axio, Nazabal, Erdozia eta Gorritiarrak

Sakanako herri kirolarien urte bukaerako festan omenaldi beroa egin nahi izan zitzaien Sakanan herri kirolak eta bereziki aizkora sustatu duten 5 aizkolari beterano sakandarrei: aurten zendutako Jose Inazio "Axio" Floresi, Juanito Erdoziari, Juan Mari Nazabali eta Manolo eta Jaime Gorritiri. Peio Lazkoz harginak egindako oroigarri ederra banatu zieten guztiei–Axioren oroigarria Alain eta Iurgi bere semeek jaso zuten– eta hitz ederrak izan zituzten beraiendako. "Euren garaian puntako aizkolariak izan ziren eta horretaz gain, Sakanan herri kirolak sustatzeko lan handia egin dute eta egiten jarraitzen dute" nabarmendu zuen Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Juanito Erdozia eta Manolo eta Jaime Gorriti aizkoran lehiatu ziren eta etxarriarra, Erdozia, izan zen gailendu zena.
Mank-ek 2004an sortu zituen Sakanako Aizkora Eskola eta Harri jasotze eskolak, aipatu kirolak sustatzeko. Axio Flores Sakanako Aizkora Eskolaren sustatzaile eta monitoreetako bat izan zen. Aizkora Eskolak Etxarrin du egoitza, Nazabaldarren bordan. Egun Juan Mari eta Floren Nazabal eta Juanito Erdozia dira monitoreak. Aldiz, harri jasotze eskolak Irurtzunen du egoitza eta Mikel Lasarte eta Xabier Igoa dira monitoreak.

Futbola

8. jardunaldia jokoan Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Mank-en Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 8. jardunaldia jokatuko da etzi Dantzalekun.

8. jardunaldia

Igandean, Altsasun
10:30ean: Urdiain – Mediolanum
11:30ean: Dantzaleku – Lagun Artea
11:30ean: Tipi Tapa – Txartel
12:30ean: Kaixo – Sayas
12:30ean: Arbizu– Sutegi

Pilota

Iñigo Aritza Txapelketako finalak jokoan

Igandean, 17:00etan, Altsasuko Burunda frontoian

Iñigo Aritza ikastolako 44 ikaslek hartu dute parte XI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketan. Finalak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatuko dira, igandean, 17:00etan. Bukaeran txapeldunek trofeoak jasoko dituzte eta parte-hartzaile guztiendako gozokiak izango dira. Ezkurdia eta Zabaleta pilotariak finalean egotea aurreikusten zen, baina Binakako partida jokatuko dutenez, ezinezkoa izango da.

Finalak

Igandean, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan

LH3:
Oier Mitxelena – Patxi Azpeitia
LH4:
Iker Agudelo – Hegoi Lakuntza
LH5:
Lander Peral – Araitz San Roman
LH6:
Ekhi Olabide – Angel Vergara
DBH1:
Izadi Reparaz – Oier Berastegi
DBH2:
Beñat Aldasoro – Urko Gartzia
DBH4:
Gorka Ansa – Iñaki Bengoetxea

Txirrindularitza

Sakandarrak Nafarroako Txirrindularitza galan

Larunbatean Nafarroako Txirrindularitza Gala ospatu zen Itaroan. Bertan hainbat sakandarrek aipamena jaso dute. Burunda Txirrindularitza Klubetik Iker Mintegi 5.a izan da kimuen 2. Linean, Iosu Jaka 5.a haurren 2. Linean, Ailetz Lasa 2.a haurren 2. Linean eta 2.a ginkanan, Iosu Etxeberria lehena haurren 2. Linean eta Ibai Azurmendi 2.a linea juniorretan. Bestalde, aipamen berezia jaso zuen Burundan trebatu eta egun Beasaingo Caf taldean dabilen Maialen Aramendia iturmendiarrak, tartean Espainiako txapelketetan Nafarroako selekzioarekin taldekako erlojupekoa irabazteagatik.

Kiroldegia

Sakanako kirolari onenak oso kontentu izendapenarekin

GUZTIEK SARIA "SORPRESAREKIN BAINA OSO POZIK" HARTU ZUTELA NABARMENDU ZUTEN

Bukaeran talde argazkia egin zuten izendapena jaso zutenek. Joanes Bakaikoa falta zen, partida bat baitzuen.

Ostiralean Sakanako kirolari onenen sariak banatu ziren beteta zegoen Arruazuko ostatuan. Mank-eko kirol zerbitzuak antolatu zuen ekitaldia, Arruazuko eta Irurtzungo Udalen laguntzarekin. Ekitaldiarekin Kirol Asteburuari eman zitzaion hasiera, larunbateko Sakanako Xake Txapelketarekin eta igandeko Herri Kirol Jaialdiarekin osatu zena. Sari ematearen ondoren auzate animatua izan zen Arruazuko ostatuan.

Kirolarien adierazpenak

Joanes eta Maialen

18 urtez azpiko mailan Etxarri Aranazko 17 urteko **Joanes Bakaikoa** pilotaria eta 15 urteko Maialen Aramendia txirrindulari iturmendiarra izan ziren sarituak. Joanes ezin izan zen ekitaldian egon, partida bat zuelako. Hala ere, izendapena pozik hartu zuela nabarmendu zuten gertukoek. **Maialen Aramendia**k azaldu zuen izendapenarekin "oso pozik" zegoela. "Aurten lortutakoarekin oso kontentu nago. Errepideetako probetan eta pistan ongi ibili naiz. Errepidean Nafarroako txapelduna izan naiz eta Espainiakoan brontzezkoa, eta pistan Espainiako txapelketan urrezko domina jaso nuen erlojupekoan" adierazi zuen.

Aritz eta Sara

18 eta 35 urte arteko mailan Etxarri Aranazko Aritz Munarriz mendi korrikalaria eta Arbizuko Sara Lizarraga borrokalaria izan ziren sarituak. **Aritz Munarriz**ek ez zuen saria espero. "Sorpresa hartu nuen, baina ilusio handia eman dit. Duela 4 urte hasi nintzen mendi lasterketan, Etxarriko mendira joan etorriko lasterketan. 3 urte daramatzat serioago eta aurten egindakoarekin kontentu nago. Ilusio berezia egin zidan Uharteko Km Bertikalean eta Etxarriko Mendira Joan Etorrian bosgarrena izateak" adierazi zuen.
Sara Lizarraga ere kontentu zegoen. "Sorpresarekin hartu dut saria. Nire lehengusu Asier hasi zen. borrokan. Egun batean bere entrenamendua ikustera joan nintzen eta entrenatzaileak esan zidan ea animatuko nintzen. Orduan hasi eta 7 urte daramatzat. Kirol honek asko engantxatzen du. Egunero entrenatzen dut, Iruñean. Senior mailan aritzen naiz, 49-51 kiloko mailan, eta aurten Espainiako txapelketan brontzezko domina lortu nuen" adierazi zigun arbizuarrak.

Javi eta Mari Gwen

35 urte baino gehiagoko mailan Javi Moreno korrikalari altsasuarra eta Mari Gwen Davies korrikalari urdiaindarra izan ziren sarituak. **Javi Moreno**k oso pozik zegoela nabarmendu zuen. "Ilusio handia eman dit; zure bailaran zure bizilagunek bozkatu duten sari bat jasotzeak poztasun handia ematen dizu. Eta asko eskertzen da. Egindako denboraldiarekin kontentu nago, polita izan da. Karreraz karrera joaten naiz, kirola egitea gustuko dudalako, eta barru-barrutik disfrutatzen dut" adierazi zigun.
Mary Gwen Daviesek ere oso pozik hartu zuen saria. "Ilusio handia eta sorpresa handia izan da. Duela 3 urte inguru hasi nintzen korrika. Hasieran nire kabuz, eta gero Emakumeen Atletismo Eskolan, Altsasun. Eskolara joatearekin asko hobetu dut eta taldean aritzea ere ederra da" aipatu zigun korrikalariak.

Sakanako Irristaketa eta Andra Mari ikastolako herri kirol taldea

Sakanako Irristalari Taldea izan da talde onena. Juli Acebes entrenatzailea zegoen sari ematean, taldeko irristalariekin batera. "25 urte daramatzagu Sakanan irristaketarekin. Olazti, Altsasu eta Urdiaingo taldeak entrenatzen ditut. Duela 3 urte Sakanako Irristaketa taldea sortu genuen, Espainiako Txapelketetarako sailkatzen ari ginelako eta hiru herrietako irristalariak bertan elkartzeko. Eta oso kontentu gaude. Emaitzak ere paregabeak dira. Kimuen mailatik aurrera irristalari guztiak sailkatu dira Espainiako Txapelketarako, eta orain arteko emaitzak bikainak dira" azaldu zuen Acebesek.
Bestalde, **Andra Mari ikastolako herri kirol taldea**k euskara gehien bulkatzen duen taldearen saria jaso zuen. Entrenamenduetan, probatan, egunerokotasunean... euskaraz bizi da taldea.

Luis eta Ricardo

Aurten bi izan ziren aipatu bereziak: Luis Martil karate irakasle irurtzundarra eta Ricardo Lopez de Sabando pilotari monitore arbizuarra. **Luis Martil** emozionatuta zegoen. "Ez nuen espero eta nahiz eta izendapena jasotzeko ni baino meritu askoz gehiago duen jendea egon, oso eskertuta nago. Nire ikasle kuttunekin konpartitu nahi dut saria, tartean Edurne Alonso lakuntzarrarekin eta Mikel Aizpun arruazuarrarekin. Eta baita Nafarroako Karate Federazioarekin ere. Gure kirolak giza-balio handiak sustatzen ditu, guk arerioari, arbitroari eta erregelamenduei errespeturik handiena diegulako. Oraindik lanean jarraitzen dut eta zortekoa naiz" nabarmendu zuen.
Pilota sustatzaile eta monitorea den **Ricardo Lopez de Sabando** ere kontentu zegoen. "Sorpresa ederra hartu dut. Olaztiko taldea entrenatzen jarraitzen dut. Utzi nahiko nuke, aldakak apurtuta ditudalako, baina ez dut ordezkorik. Iñigo Aritza ikastolan ere jarraitzen dut pilota sustatzen. Laguntza eskatu zidaten eta pozik" azaldu zuen. Sakanan pilotaren osasuna juxtu ikustendu, beheraka. "Beste kirolak errazagoak dira, talde kirolak direlako, baina pilota ez, eta horretaz gain eskuek sufritzen dute. Baina tarteka pilotariak ateratzen ari dira. Egun Joanes Bakaikoak etorkizun handia dauka, uste dut pilotari handia izango dela" gaineratu zuen.

Nonerabili

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

XAGU
ALTSASU
% 5eko deskontua, 30€tik gorako erosketa eginez gero.

LIBURUNDA
ALTSASU
%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA
ALTSASU
30€tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA
ARBIZU
Garbitu, moztu eta apaindu 26€.

FRUITIS FRUTA DENDA
IRURTZUN
%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria

ARROXA LIBURUDENDA
ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua irakurketa liburuetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

kultura >>

ANDA ETA SALAZAR BILBON: Windsor Kulturgintza aretoak eguberri garai honetarako Volvemos a montar el belén erakusketa antolatu du, ilbeltzaren 15era arte. Bi sakandarren tamaino txikiko lanak daude.

Lo kantak Etxarriko abesbatzaren eguberri emanaldian

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan

Egizu lo izenburua du etzi Etxarri Aranazko abesbatzak eskainiko duen emanaldia. "Betiko eguberri kantak eman beharrean lo kantak prestatzen ari gara eta horregatik eman diogu izen buru hori kontzertuari", azaldu digu Jon Goikoetxea abeslariak. Mundu osoko lo kantekin osatu du abesbatzak errepertorioa. Alicia Armendarizen zuzendaritzapean ariko dira. Azken hiru hilabeteetako lanaren emaitza eskainiko du abesbatzak.

Abesbatza txikia

Etxarri Aranazko abesbatzak aurten martxan jarri duen egitasmoa da Abesbatza Txikia. Maiatza aldean herriko ikastetxeen bidez egitasmoaren berri zabaldu zuten eta "haur pilo bat apuntatu ziren". Batzuk utzi ondoren, gaur egun 50 dira, guztiak ere, 6 eta 13 urte bitartekoak. "Haiek abesteko eta gustura pasatzeko eskaintza bat izan nahi du. Kantu-zaletasuna zabaltzea da gure asmoa. Eta etorkizunean abesbatzan sartzea errazagoa izan dadila", azaldu digu Goikoetxeak.

Elena Garciandia etxarriarra eta Jasone Razkin lakuntzarra dira zuzendariak. Ostiraletan 18:00etatik 19:00etara entseatzen dute. Txikiek zenbait kantu emanen dituzte etzi bakarrik, baina helduekin batera ere arituko dira. Irailaren 20an plazan egindako kontzertuan jendaurrean estreinakoz aritu Abesbatza Txikia.

Aurreko mende akaberan abesbatzak Urgain gazte abesbatza sortu zuen, 12 eta 18 urte bitarteko kideekin. Goikoetxeak egoki joko luke etorkizunean gazte abesbatza sortzea. Gaur egun sortzea zail ikusten du, baina gazte talderen bat ate joka agertuz gero ateak zabaltzeko prest azaldu da Goikoetxea. Bestela, Abesbatza Txikia hura sortzeko baratza izan daitekeela esan du.

Egitaraua

Izenburua	Jatorria	Moldaketak
Thula baba	Lo-kanta zulua	
Lo hadi aingüria	Euskal lo-kanta	Francisco Escudero
The seal lullaby	Eric Whitacre	
Fa la nana	Monghidoroko lo-kanta herrikoia (Italia)	Giorgio Vacchi
Karácsonyi bölcs dal	Szeged-eko lo-kanta herrikoia (Hungaria)	Bárdos Lajos
Haurtxo polita	Euskal lo-kanta	Jose de Olaizola
Summertime	G. Gershwin	Ferrari Jr.
Duerme negrito	Atahualpa Yupanqui	Emilio Solé
Mi burrito sabanero	Hugo Blanco	
Arkume ta gaztakin	Euskal gabon-kanta	Lorenzo Ondarra
Siyahamba	Andries van Tonder	Alejandro Leon
Fruit canon	Egile ezezaguna	
Lau teilatu	J. C. Perez	Josu Elberdin

Erkudengo Amaren eguberri kantak

Gaur, 20:30ean Altsasuko elizan kontzertua

Eguberri garaian Altsasun dagoeneko emanaldi klasikoa den kontzertua eskainiko du gaur Erkudengo Amak. Ez da alferrik gisa horretako kontzertua egiten duen 32. aldia. Munduan barnako gabon kantek osatzen dute errepertorioa. Alemania, Afrika eta, jakina, Euskal Herriko eguberri kantak abestuko ditu Erkudengo Amak.

Egitaraua

Malaika
Laus domino
Egizu lo
Lua lua
Oi Eguberri gaua
Ai gure umea
Arkume ta gaztakin
Hailige natch
Por los caminitos de Jerusalem
Adeste fideles
Noche de Paz
El pequeño tamborilero
Blanca Navidad
Festejo de Navidad

Idazlearekin euskahalduntzen

AEK-ko 25 bat ikasle gaur Jon Arretxerekin literatur solasaldia izan dute. Arbizuko idazlearen 612 euro eleberria eman die guztiei hizketa gaia. Toure protagonista eta haren pasadizoei buruzko galderak erantzun eta azalpenak eman ditu Arretxek saioan. Ikasleak jakin-mina aseta bukatu dute, gustura.

Irurtzungo abesbatzaren kontzertua atzeratuta

Aste bat atzeratu du gabonetako kontzertua Irurtzungo abesbatzak. Iganderako aurreikusia zegoen emanaldia hilaren 27ra, larunbatera atzeratu da. 19:30ean izanen da, elizan. Fermin Idareta Goldarazena zuzendariak jakinarazi digunez, abesbatzarekin batera aritzekoa zen sopranoa asteburuko emanaldi baten ondoren ahotsik gabe gelditu da. Hura sendatzeko emanaldia atzeratzea erabaki du Irurtzungo abesbatzak.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Enjoy Poverty

Rio de Janeiron nagoela, da maré fabelan kokaturik dagoen Centro de Artes da Maré antzoki/dantza eskolara joan naiz ikuskizun batera. Fabelarako bidean, eztabaida bat sortu da: Zein da arteak duen zentzua pobrezia besterik ez dagoen guneetan? Zein da artista batek artearen bidez lor dezakeen aldaketa leku hauetan? Artistek ingurune hauetan lan egiten dutenean, egoera hau salatu eta aldatzeko nahiaz mugiturik egiten dute lan? Ala interesa sustatuko duen produktu baten bila dabiltza ?

Afrikan hezurretan dauden umeen argazkiak ateratzen dituen argazkilari baten helburua zein da? Lehenengo munduko lurraldeetan kontzientzia sortzea eta ondorioz egoera honen aldaketa lortzea? Ala ospea emango dion produktu baten bila dabil? Alde batetik Afrikan dagoen egoera ezagutarazten digu, baina zer edo zer ordaintzen al die bere lana aurrera eramaten laguntzen dioten ume horiei? Sariak jasotzen dituenean mendebaldeko lurraldeetan, bidaltzen al die pertsona haiei sariaren zati bat? Irudi eskubiderik ordaintzen al die? Ala ez bada, ez al du argazkilari honek salatzen duen egoeraz probetxu ateratzen?

Enjoy Poverty dokumentalak eztabaida hau jartzen du mahai gainean, hain zuzen ere. Renzo Martens artistak, zinema kamera lepoan, Kongoko lurralde behartsuenetan bi urte igaro ondoren sortutako lana da filmaketa hau. Pobrezia esportazio produktu nagusia den lurralde hauetan, Martens-ek bertako komunitateak bultzatzen ditu duten pobreziaren bidez dirua irabaztera. Arrotzak diren artistek haz nekea erabiltzen badute dirua irabazteko zergatik ez diote bertakoek probetxu ateratzen? Bertako argazkilariei inguruan duten egoera latzenak argazkitan hartzen erakusten die, haz nekez nabarmentzen diren saihetsak mendebaldeko egunkarietan saltzeko nola egin ditzaketen erakargarri.

Mendebaldeko arte garaikideak egiten dituen erreklamazio politikoak ikertzen ditu film honek, non nahiz eta askotan goratzekoak diren besteetan esplotazioaren bidez lortzen diren.

Martens-ek arte mota hau salatzen du, egoera honen errepikapenaren bitartez. Dokumentalak sariak eta ospea irabazten ditu, kritikatzen duen artean bihurtzen delarik.

Zinema doinuak frontoi betean

Bihar, larunbata, 19:30ean Altsasuko Burunda frontoian kontzertua eskainiko dute Haize Berriak bandak eta Zumarragako bandak, Felix Linaresek aurkeztuta

Aurretik filmetako soinu bandak jo izan baditu ere, estreinakoz, bihar Haize Berriak bandak kontzertu osoa eskainiko dizkie haiei, irudiak laguntzen dituzten doinuei. John Williams konposatzailearen lanean oinarritu dira biharko emanaldia osatzeko. Haren sinadura dute, besteak beste, *Star Wars*, *Harry Potter*, *ET*, *Superman*, *Indiana Jones* eta beste hainbat filmetako doinuek. Williams bost Oscar sariren jabe da. Bihar Altsasun aritu ondoren, bi bandek Zumarragako Zelai Arizti aretoan joko dute etzi, 13:00etan.

Sakanako Haize Berriak banda eta Zumarragako banda eskuz esku ariko dira emanaldian. Guztira 70 musikari, emanaldia irailetik prestatzen ari direnak. Haiekin batera Irurtzungo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko musika eskoletako 100 haur kantari ariko dira. Amaia Razkin biolin bakarlari etxarriarra izanen da emanaldian eta Jasone Etxebeste klarinetea. Guztiak Luis Orduñak zuzenduta (bi bandetako gidaria da) ariko dira. Emanaldia Felix Linares irrati eta telebista kazetariak aurkeztuko du. Aurretik bandarekin aritu izan dira Fernando Argenta eta Natxo de Felipe.

Elkarlanean

Haize Berriak banda eta Sakanako musika eskolen arteko elkarlanaren emaitza ere bada biharko kontzertua. Bandako zuzendaritzako kide batek harreman horren ardura du. "Musika eskoletako zuzendariekin hitz egiten du haien bidez musikari gazteak bandara joateko animatzeko", azaldu du Josu Rubiok Beleixe Irratian (FM 107,3). Bandan argi dute Sakanako musika eskolak "ezinbestekoak" direla ibarreko kultura eta musika bizitzarako.

Behar beharrezkoak dira abesbatzak, banda, txistulari talde, fanfarre eta abarrak kide berriz hornitzeko". Horregatik, Jasone Etxebestek gaineratu du, "musika eskoletatik zenbat ikasle gehiago etorri Haize Berriak bandara, hobe. Salto txiki hori pixka bat kostatzen da". Rubiok "beldurrik ez izateko" eskatu die, "hasieratik ez delako asko eskatzen".

Bazkideak

Urtean 15 euro ordainduta izan daiteke Haize Berriak bandako bazkidea.

Aktore bila

Haize Berriak bandak ilbeltzaren 2tik eta 5era *Zatoz Agur!* film laburra filmatuko du. Bandak aktore lanetan aritzeko 25 eta 30 urte bitarteko sakandar bat behar du. Joseba Salegi zinema zuzendari altsasuarra izanen da proiektuaren burua. Aktore izan nahi dutenek 649 435 487 telefonora hots egin diezaiokete. .

Kategoriako bertso afaria

Bihar, 21:30ean Iratxo elkartean Mendiluze eta Sarriegi

Aizpea Irurtzungo euskaltzaleen topaguneak antolatutako Euskal Ekitaldien urteroko programazioan ez du hutsik egiten bertso-afariak. Bihar goi mailako bi bertsolari ariko dira Irurtzunen: Aitor Mendiluze Gonzalez eta Aitor Sarriegi Galparsoro.

Lehena andoaindarra eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko bertsolaritza irakaslea da. Eskolan izan zuen lehen harremana bertsoekin. Hernaniko eta Andoaingo bertso-eskoletan aritua da. Herriko bertso-eskolan trebatua, 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Bigarrena, beasaindarra, Goierriko Bertso Eskolako kidea da. Lizardi eta Osinalde sariak irabazi ditu. Egungo Gipuzkoako txapelduna da, 2011ko txapelketa irabazi baitzuen.Biak ere bostetan parte hartu dute Bertsolari Txapelketa Nagusian.

Irudiak hitzei

Hamabost haurrek parte hartuko dute gaur, 17:00etatik aurrera, Altsasuko Iortia kultur gunean antolatuta dagoen ilustrazio tailerrean

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta, irudiak eta testua lotzen ikasiko dute aurretik izena eman duten haurrek, 6 eta 10 urte bitartekoak guztiak. Haiek beraien album ilustratua sortzeko aukera izanen dute. Parte-hartzaileak Aitziber Alonso ilustratzailearekin eta Yolanda Arrieta idazlearekin ariko dira albumgintzan. Gainera, sortutako lanaren zati bat etxera eramateko aukera izanen dute. Mank-eko eta beste hainbat toki erakundeetako euskara zerbitzuen artean Etxepare Saria antolatzen dute, albuma ilustratzeko helburua dutena. Egitasmo horren baitan kokatzen da gaurko tailerra.

Ardiak Kaluxan

Hilabete batez egonen dira ikusgai, ilbeltzaren 18ra arte

Urdiaingo tabernak Idoia Zufiaurreren, chuffiren, lanak ditu ikusgai. Sortzaile urdiaindarrak ardien serieko hiru koadro jarri ditu ikusgai. Pintura hiperrealista da, eskuz landutakoa, inolako ordenagailuren laguntzarik gabe. Haiekin batera, hainbat teknikarekin sortutako ilustrazio sail bat dago (argazki landua, ilustrazio digitala, akrilikoa, tinta, aerografoa…). Komiki eta pop eraginak dituzten landareen, tokien, pertsonen edota animalien irudiak dira Kaluxan ikusgai daudenak.

Zufiaurrek diseinu grafiko ikasketak eginak ditu eta Ingalaterran trebatu zen. Diseinu grafikoa eta ilustrazio arloan lan egin du. Guaixe astekariaren diseinua egin zuen.

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	13%	40%	23%	5%	5%	13%	25%
Min:	3	4	4	1	1	2	3
Max:	10	10	9	12	13	10	9

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	11.5	1.5	29
Etxarri A.	11.1	-0.5	47.7
Altsasu	11	0.5	31.7
Aralar	5.9	-1	45.7
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
22	28	5	13

>>11 galdera

Arturo, Nerea Enaitz eta Amaia

ANFAS-eko kideak, logopeda eta psikologoa

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1.Zer da ANFAS?
Adimen urritasuna dutenen Nafarroako elkartea da. Duela 50 urte inguru sortu zuten familiek, ikusita adimen urritasuna zutenek ez zutela nora joan, ez zituztela non landu eurek zituzten beharrak. Hasieran elkartzea zen helburua. Ondoren familiekin lan egiten hasi ziren, eta gero ikusi zuten helduekin lan egin behar zela. Hortik sortu zen TASUBINSA, adimen urritasuna daukaten pertsonek lan egiteko espazioa izateko. Hasieran Iruñean zegoen ANFAS, baina egun Iruñean, Sakanan, Baztan-Bidasoan, Tafallan, Zangozan eta Tuteran dago. Toki bakoitzean zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira.

2.Sakanan zer eskaintzen du?
Umeendako arreta goiztiarra eskaintzen dugu. Horretaz gain, helduendako TASUBINSAko lantokia ere badago Lakuntzan. ANFAS-en adimen urritasuna dutenen familiak, profesionalak eta boluntarioak biltzen dira. Zerbitzu ezberdinak aurrera ateratzeko profesional eta boluntario askoren beharra dago. Bereziki udako oporretan, udalekuetan, asteburuetako ekitaldietarako…

3.Zenbat aritzen zarete lanean Sakanako zerbitzuan?
Momentuz gu biak gaude, logopeda eta psikologoa, eta arduraduna. Astean bitan etortzen gara. Arreta goiztiarreko zerbitzua eskaintzen diegu haurrei, 2 taldetan banatuta. Batetik 0-3 urte arteko zerbitzua dago. Zerbitzu kontzertatua da, Nafarroako Gobernuak hartzen du bere gain, eta dohainik da. Bestetik 3-6 zerbitzua dago. Kasu honetan familiek kuota bat ordaindu behar dute. Egun 15 ume inguru-rekin gaude lanean.

4.Non eskaintzen dituzue saioak?
0-3 urte arteko zerbitzua Altsasuko Txirinbulo haur eskolan eskaintzen dugu. Estimulazioa eta logopedia saioak eskaintzen ditugu. 3-6 urteko saioa eskaintzeko Zelandi eskolan biltzen gara.

5.Zuengana jotzeko zein da jarraitu beharreko prozedura?
0-3koen kasuan, lehenengo Sarrigurenera joaten dira, bertan baitago zentro basea. Bertan balorazio bat egiten dute eta haurren beharren arabera gure zerbitzura bidali ahal dute. Kasu horretan, guk lehenengo kontaktua egiten dugu familiekin. Familiak aipatzen digu zein behar eta interes dituzten… eta horren arabera hasten gara saioekin. Aipatzekoa da koordinazioa egiten dugula pediatrekin, irakasleekin, familiekin, medikuekin…

6. 6 urte gorakoendako ez al dago ezer?
ANFASen 7-21 urtera arteko zerbitzuak "habilidades adaptativas" du izena, baina Sakanan orain arte ez da atera. Hor gabiltza borrokan, ea hurrengo urterako zerbitzua hemen eskaintzea lortu ahal dugun.

7.Gutxieneko kopuru bat behar al da zerbitzua jartzeko?
Bai. Aurreko urtean haur baten eskaera egin zen eta ezezkoa eman ziguten. Haur kopuru txiki batekin hastea polita litzateke. Adin tarte honetan komunikazio abileziak, abilezi sozialak eta abilezia akademikoak lantzen dira, autonomoak izatea sustatzeko.

8.Geroz eta diru laguntza gutxiago dagoela entzuten da.
Nafarroako Gobernuarekin kontzertatuta dauden zerbitzuak finkatuta daude eta Barañaingo etxebizitzak %100ean ziurtatuta daude. Baina beste zerbitzuak ez. Bazkideen kuotekin eta enpresa pribatuek egiten dituzten donazioekin estaltzen dira. Familia bakoitzak senitartekoak hartzen dituen saioen araberako kuota pagatzen du. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak bekak ematen dituzte, baina diru laguntzak behera doazenez…
Arturo: Guri Estatuko beka ezeztatu egin digute. Aurretik eman izan digute, baina aurten ez. Orain Nafarroako beka eskatu dugu eta ikusiko dugu.

9. Beraz, beharrezkoak dira Etxarrin abenduaren 26an antolatu duzuen mus txapelketa bezalako ekitaldiak.
Bai, batetik dirua ateratzeko, baina bestetik ANFAS gizarteratzeko. Jendeak jakiteko zer den ANFAS, zein lan egiten duen eta Sakanan zein zerbitzu ditugun.

10.Izena ematea zabalik dago?
Bai. Mus txapelketa abenduaren 26an izango da, Gabonetako oporretan, Etxarri Aranazko Lekuona tabernan. Izena ematea han bertan egin daiteke, aurretik, edo egunean bertan, 15:30ak arte. Mus txapelketa 16:00etan hasiko da.

11.Hortaz, muslariak parte hartzera animatuko ditugu!
Bai, jendea animatu dadila, txapelketan parte hartzeaz gain, ANFAS-en egiten den lana ezagutu ahalko duelako.